

biarko utzi gabe, Ez izan lotsarik ez duzua irakurtzen esateko. Egia da guk eskatzen duguna. Esaten duzuna, ba, egia izan dedilla. Ar ezazu aurretik gure eskerrik onena.

Papera galdu egin bazaizu eta egiten genitun galderak aaztu, ara emen: 1) Atsegin al zaizu YAKIN? 2) Irakurtzen al duzu? 3) Dena? Atalen bat bakarrik? Zein? 4) Zergatik ez duzu irakurtzen? euskeragatik? gaiagatik? 5) Gure errebitan zer gustatzen zaizu geien? zer gutxien? 6) Zer diozu teknika ta kultura itzei buruz: euskeraz bear al ditugu, edo kanpokoak ere onartu? 7) Gustatzen al zaizu bere presentazioa? 8) Inprentaz ateratzekotan, bere formatoa aldatzea nai al zenuke? Nolakoa? txikia edo aundia? zein errebita jartzen diguzu eredu bezela? 9) Salneurriakin konforme al zera? (urteko 50 peza); 10) Zure bizibidea zein da? 11) Bai al duzu beste ezer esateko?

Edozein paperean erantzun eiguzu. Eskerrik beroenak gaurrate erantzun duten guziei. Milla esker!

* * *

PARIS'TIK.—Eskutitz bat artu dugu Paris-tik jarraian dijoan berria gure aldizkarian ezarriko ote genien eskatuaz. Ez dugu ezer esan bearrik, biotzik onenakin betetzen dugu eskaritxo ori. Onatx:

"IPUI-SARIKETA". — Igazko Euskera-ren Eguna'n, Lotazillaren 3'garrenean, sariketa ontarako epea amaitu zan.

Atsegiñez beterik, Euskalerriko alde guztietatik ipuiak erruz eldu dirala jakiferazten dugu; bai ta atzerrietatik ere.

Beren lanak igorri dituztenenganako esker onez beteta gaudela adierazi nai dugu, eta bide batez, aiduruz, guziaz gure zorion-agur kartsuenak biali ere, ipui geyen-geyenak baitiran politak.

Epaikariak guztiak aztertzen ari dira eta ez zaie oso gauza erreza izango, bear dan bezela muetaka jartzea. Dana dala, epaia laister amaturik izango dalakoan

gaude, eta orduan, berealaxe, ezagun-raziko da, bai ta bere arauz sariak banatu ere.

"E. K. A." Idazkaria.

* * *

"BOGA, BOGA". — Onatx Donosti'ko apaizgaiak antolatu diguten euskal-kantu-xorta ederra. 175 orrialdeko liburuxka bere 83 abesti polit, eder eta oso ezagunakin. Gure erriak bere-bere dituan abesti zaar ta xamurrenak galtzen doakigulakoan gaude. Ona liburuxka dotore batean bilduak gure gazteak ikasi ditzaten, mendian gora, naiz kalean beera, nunai kanta ditzaten. Erosi eta erosiarazi liburuxka goxo au. Geroruntz beste batzuk ere argitaratuko dituzte, baiña ortarako zuen abegi ona ikusi bear. Ziur gaude ez diozutela ukatuko, Merkeago ezin: 20 peza. Euskaldun guzien eskuetan ikusi dezagula liburutxo auxe eta beren ezpainetan berak dakarzikin abesti bikainak. Eskatu Donosti'ko seminarioan Zuzenbide ontara egin zure eskabide Joxu de Etxebarria, Seminario Dioces. San Sebastian.

E'tar K. ofm.

ANDIK, EMENDIK

SUJERENTZI BAT. — Amesa bada ere, egin dezagun biar etzi gure eskolak berpizturik agertuko zaizkigula. Irakasleak borondaterik onenakin gauzak erakusteko, ikasleak liburuak puskatzeko ere prest. Oraintxetik, ordea, somatu dezakegu uts bat: ez dugu textorik izango, Irakasle eta ikasleak trebetsu, baiña nundik ikasi ez, zer irakurririk ez. Amesa ta egia! Zergatik ez gaur bertatik asi utsune ori betetzen? Ona sujerentzi bat: Arantzazun aurtan (adibidez jartzen dut) teologilariok De Verbo Incarnato, Mariologia... ikasten ari gera. Gure artean mordoxka bat biltzen gera eta erabaki auxe artzen dugu: bakoitzak artu dezagun gai bat, tesi bat, gauza txikia, laburra; urtean barrena ikasi eta sakondu gai ori eta azkenez euskeraz eman. De non artean texto edo gai bat artzen badugu sail ederra egingo dugu.